



BAZTAN BALLEKO BATZAR NAGUSIA
JUNTA GENERAL DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN

2013KO ABUZTUAREN 29KO EZ-OHIKO BILKURA
SESIÓN EXTRAORDINARIA DE 29 DE AGOSTO DE 2013

BERTARATUTAKO BATZARKIDEAK
SEÑORES VOCALES ASISTENTES

ZINEGOTZIAK/ CONCEJALES:

GARBIÑE ELIZEGI NARBARTE
MIKEL ORTEGA ARRAZTOA
MAITANE MARITORENA AZKARATE
M^a TERESA OTEIZA APECECHEA
JON ELIZETXE BIDEGARAI
FLORENTINO GOÑI TELLECHEA
IÑIGO ITURRALDE ELICECHE
MAITE J. ITURRE LLANO

HERRIETAKO ALKATEAK (JURATUAK) /
JURADOS:

ISAAC REKALDE IRIGOIEN - AMAIUR
JOKIN IRIGOYEN AGUERRALDE - GARTZAIN
PEIO OBREGOZO ISTILART-IRURITA
MIKEL SOBRINO URRUTIA - ELIZONDO
IVAN DUFURRENA IÑARREA - ERRATZU
CARLOS I. BERISTAIN BEREAU - ARIZKUN
AITOR AZKARATE TOMASSONE - ANIZ
JESUS ANGEL GARCIA JIMENEZ - LEKAROZ
SOTERO ETXANDI JUANIKOTENA - ARRAIOZ
CESAREO GARTXITORENA ETXEBERRIA
BERROETA

JUNTEROAK / JUNTEROS:

ARANTXA ZELAIA TXOKARRO (BASABURUA)
MARTIN M^a PLAZA ZUGARRAMURDI
(ELIZONDO)
VICTORIANO ELIZAGOYEN ECHEGARAY
(ERBEREA)

AGERTU EZ DIRENAK / NO HAN ASISTIDO:

ZINEGOTZIAK/ CONCEJALES:
BEGOÑA SANZBERRO ITURRIRIA
MARIA CARMEN IRIBARREN IRIBARREN
MARIA ISABEL OLAVE BALLARENA
LEOPOLDO JAEN SOBRINO
JOSE MARÍA GARMENDIA ARIZMENDI

HERRIETAKO ALKATEAK (JURATUAK) /
JURADOS:

LUIS ROLDAN ASTIZ- ALMANDOZ
MATIAS ARRIADA MENDIBERRI - AZPILKUETA
PEDRO ALBERRO EQUIOIZ - ELBETE
S. RUBÉN SANTERVAS USTARROZ - ORONOZ
MIGUEL MENDIBURU CORDOBA - ZIGA

JUNTEROAK / JUNTEROS:


ION ALCASENA IRUNGARAY (BAZTANGOIZA)

Elizondon dagoen Baztango Udaletxean, 2013ko abuztuaren 29an, arratsaldeko zortziak eta laurdenean, Garbiñe ELIZEGI NARBARTE alkate-udalburua zela eta legezkó deialdia aitzinetik egina, ondoan aipatu batzarkideak bertaratu ziren, bai eta batzarkideak ez diren zenbait mendi ordezkari ere, batzarkideen laguntzaile gisa. Eta bertan Iulen URBIOLA LOIARTE idazkari jauna zelarik eta Lohitzune NUIÑ AMATRIA lagundurik, **BAZTAN BALLEKO BATZAR NAGUSIA** bildu zen, **ez-ohiko** batzarra lehendabiziko deialdian egin asmoz.

Udalburu andreak bilkura hasiko zela adierazi zuen, bilkura publikoa izanik. Jarraian gaitzerrendan bildutako aferak eztabaidatzeari ekin zitzaion eta ondoren azaltzen diren erabakiak hartu ziren.

*En la Casa Consistorial del Noble Valle y Universidad de Baztan, sita en el Lugar de Elizondo, siendo las veinte horas y quince minutos del día 29 de agosto de 2013, bajo la Presidencia de la Sra. alcaldesa-presidenta D^a. Garbiñe ELIZEGI NARBARTE y previa su citación en legal forma asisten los señores vocales relacionados al margen, así como algunos comisionados de montes no vocales, en calidad de auxiliares de los junteros. Y estando presente el secretario -D. Iulen URBIOLA LOIARTE, asistido de la técnico de euskera D^a Lohitzune NUIÑ AMATRIA, se reunió **LA JUNTA GENERAL DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN** al objeto de celebrar sesión **extraordinaria** en primera convocatoria.*

La Sra. presidenta manifestó que comenzaba la sesión, siendo la misma pública, procediéndose seguidamente a tratar los asuntos comprendidos en el Orden del Día y siendo adoptados los acuerdos que seguidamente se indican.



1.- BAZTANGO ALKATE-UDALBURUAK eta ELIZONDOKO ALKATEAK JASOTAKO MEHATXUAK

1.- AMENAZAS REALIZADAS A LA ALCALDESA-PRESIDENTA DE BAZTAN Y AL JURADO DE ELIZONDO.

Mozioa behin azalduta,

Explicada la moción,

Baztango alkatea eta Batzar Nagusiko Lehendakaria den Garbiñe Elizegi Narbartek eta Elizondoko zinpeko alkatea den Mikel Sobrino Urrutiak Baztandarren Biltzarra egunean eta Elizondoko bestetatako Santiago egunean Balleko etxean Ikurriña jartzeagatik eta presoan aldeko ikurrak paratzea baimentzeagatik *Agrupación de Nacionalistas Navarros* elkartetik jasotako bi heriotza mehatxuei buruz,

Honakoa adierazi nahi dugu:

*Agrupación de Nacionalistas Navarros*en heriotza mehatxuak Nafarroan Euskal Herriko ikur nazionalen kontra abiatutako estrategia oso baten baitan gertatu dira. Aipatu estrategia horren bidez gure Herriko eta Balleko etxeetan Ikurriña jartzea debekatu eta urteko egun guztietan Espainiako bandera jartzera derrigortu nahi dute, horretarako lege bereziak eginez eta, hortik eratorritzen diren zigoren mehatxua baliatuz, beren helburua inposatuz. Horren arduradun nagusiak UPN eta Espainiako Gobernuaren ordezkaria dira.

Ikurriña, Euskal Herriko ikur nazionala da, eta haren debekua euskal identitate nazionalaren kontrako eraso zuzena da, Euskal Herriaren ukazio zuzena.

Halaber, Espainiako bandera estatu egitasmo inposatzaile baten ikurra da, hain zuzen Euskal Herriaren izatea ukatzen duena, euskal nazio lurraldea zatitzen duena eta euskal herritarrei beren orainaz eta geroaz erabakitzeko eskubideaz gabetzen diena.

Ikurriñak Baztanen duen onarpen zabala eztabaidaezina da; hala Ikurriñaren debekua eta haren kontrako eraso orokorrean euskal herritar guztien kontrako eraso bada, baztandarren sentipen nagusiaren kontrako eraso zehatza ere bada:

Horiek guztiak erranik, honakoa erabakitzen dugu:

Heriotza mehatxua jaso duten Garbiñe Elizegi Narbarte Baztango alkate eta Batzar Nagusiko Lehendakariari eta Mikel Sobrino Urruti Elizondoko alkateari elkartasunik sentituena agertzea.

Heriotza mehatxu hauek errefusatzeko eta talde faxista horien jarduna arbuiatzea

UPNek eta Estatuaren Nafarroako ordezkariak Ikurriñaren aurka eta euskal ikur nazionalen kontra Nafarroan daramaten politika salatzea.

Ikurriña galerazteko eta Espainiako bandera jarrarazteko egin dituzten salbuespen legeak errefusatzeko.

Baztango herri guztietan, herriko batzarreen adostasunarekin herriko toki aitzindarietan Ikurriña eta euskal herriko gainerako ikur nazionalak jartzea.

Batzarkideek aipatutako gaiak bere iritzia eman ondoren eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildutakoak eta honela laburbiltzen direnak,

Exponiendo los miembros de la junta, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión y que se resumen en,

Sotero Etxandi (Arraiozko alkatea): Mozio hau aintzinat ateratzea oso inportantea iruditzen zait. Baztango gehienek pentsatzen duguna aintzinat ateratzea litzatekeelako. Erraten delarik UPN arduraduna dela, argi dago hori hala dela, inposaketa politika bultzatzen ari da aspaldi, gure izaera, nahietan nahiko genukeenaren kontra dabil. Kasu honetan, ikurra adibide bat da. Inposaketa gisa. Egin duten ikurraren legea hor dago. Bertze aldetik erran beharra da, UPN bera dela beti zioena, behintzat komeni zitzaizlarik, instituzioetara beti etorri behar dela debatitzera eta beraien postura defendatzera. Begira nola egiten duten hauek! zein faltso eta gezurtiak diren beren jarrera politikoan! Orain ez dira gai bere burua defendatzeko. A zer errespetua gordetzen dion

Sotero Etxandi (jurado de Arraioz): Me parece que es muy importante sacar adelante esta moción porque es lo que piensa la mayoría de los baztaneses. Cuando se dice que UPN es responsable, eso está claro que es así, que impulsan una política de imposición desde hace mucho tiempo en contra de nuestra personalidad. En este caso, la bandera es un ejemplo. Ahí están la ley de símbolos que han hecho como imposición. Por otra parte, UPN, desde siempre o al menos cuando le ha convenido así, siempre ha ido a las instituciones a defender su postura. Mira: qué mentirosos y falsos son en su postura política, ahora no son capaces de defenderse. Qué respeto tienen a esta institución que ahora no aparecen. Aquí se demuestra el espíritu y la

instituzio honi, hona ez agertuz. Horrek erakusten du UPNren jarrera eta izpiritua. Baita ere erran behar, UPNk sortu duela eta gainera bere barruan dituela amenazaten ari diren jendeak, ideologikoki. UPNk denok dakigu, bertzeoi leporatzen gaituzte amenaza hauei buruz esanez, kriston bola egiten ari garela eta lekuz kanpo gabiltzalakoa. Beraiek erratea hori egoera honetan, parte handi batek, Euskal Herriaren etorkizuna garatu nahian behar bezala, biolentzia alde batera utzi eta pausuak ematen ari direlarik, nola ez duten hontarako hartzen hori ere, salatzen da. Nik behinik behin anitz gauza gehiago ere baditut erratekoak. Akitzeko, nik behinik behin Garbiñe eta Mikeli gure solidaritate guztia eta animoak ere zuendako. Mehatxu hauen gainetik aitzinera jarraitzeko, baduzue gure errespetu osoa, nerea behinik behin. Mobilizazioak hemendik deitzea eta ikurrak herrietan jartzea zuzena eta beharrezkoa iruditzen zait. Hauek kikildu gaitezen nahi badute, horren kontrako egin behar dugu, aintzinat segitu. Aintzinet segituz. Garaitzen dugunean mehatxu hauek sentidurik ez izatea lortuko dugu.

Maite Iturre (NABAI-2011): Sotero aipatu du, baina nik azpimarratu nahiko nuke UPNren hutsunaren larritasuna. Oraintxe Osoko Bilkura izan dugunean. Osoko Bilkuran beraien mozio bat eztabaidatu da, gainontzeko taldeak hori eztabaidatzen egon gara. Hau bera eztabaidatu da. Ez dakit ikusi duzuen, altxatu eta joan egin dira. Hain demokratikoak omen diren horiek, mespretxuz tratatu diote Batzar Nagusi honi, alde egiten diote eta ez dute eztabaidatzen ere. Hori oso larria dela iruditzen zait.

Carlos I. Beristain (Arizkungo alkatea): Maite eta Sotero solastu diren hari beretik, nire aldetik reafirmatu zuei elkartasuna adierazteko tokia hau dela. Beste toki guztiak zilegiak dira, Udal Plenoa zilegi da, karrika zilegi da, baina Garbine Elizegi izanik Batzar Nagusiko Lehendakaria eta Mikel Sobrino izanik Elizondoko Alkatea eta biak erakunde honetako partaideak, niretzako elkartasuna adierazteko gunerik nagusia eta garrantzitsuena hau da. Beste guztiak ere arras baliogarriak eta beharrezkoak diren bezala, baina hemen eman behar zen eztabaida nagusia. Hemen egon behar ziren ostrukarena egin dutenak. Ostrukarena egin dutenak justu egoera hau probokatu dutenak dira. Modu harro batean, lege hau beraiek onartu zutelako eta orain ondorioak beraien herrira iristen direnean, hanka egiten dute. Niretzako hori arduragabekeriaz jokatzeko da, itsuskeria bat da. Beren jarrerarekiko mesfidantza ikaragarria sortzen dute, besterik ez.

actitud de UPN. También hay que decir que UPN ha creado y tiene dentro de su partido gente que amenaza, ideológicamente. Todos sabemos que UPN nos echa en cara al resto que estamos haciendo una montaña de un grano de arena, que es algo fuera de lugar. Hoy, cuando mucha gente quiere conseguir un futuro para Euskal Herria como es debido, dejando de lado la violencia y dando pasos en este sentido, ni siquiera son capaces de reconocer esto. Esto es denunciabile. Para terminar, a Garbiñe y a Mikel les quiero mostrar nuestra solidaridad y apoyo, mucho ánimo. Que sigáis adelante por encima de estas amenazas porque tenéis todo nuestro respeto, por lo menos el mío sí. Me parece correcto y necesario llamar a la movilización desde aquí, y desde aquí hacer un llamamiento a poner nuestros símbolos. Si quieren que nos asustemos y que nos acobardemos lo que hay que hacer es seguir adelante. Siguiendo adelante algún día conseguiremos que estas amenazas no tengan sentido y darle la vuelta a esta situación política. Para eso debemos seguir trabajando.

Maite Iturre (NABAI-2011): Sotero ya lo ha comentado, pero yo quiero subrayar que la ausencia de UPN es muy grave. Me parece gravísimo cuando ahora mismo hemos tenido el Pleno. En el pleno se ha discutido y se ha tratado una moción que ellos han presentado. A pesar de ello, no se si lo habéis visto, se han levantado y se han marchado. Estos que parecen tan democráticos, han despreciado a esta Junta General, se han marchado. Esto me parece muy grave.

Carlos I. Beristain (jurado de Arizkun): Por mi parte reafirmar que este es el lugar para demostrar nuestra solidaridad. Otros lugares también son legítimos, la calle es legítima, el pleno, pero siendo Garbiñe Elizegi Presidenta de la Junta General y siendo Mikel Sobrino el Alcalde Jurado de Elizondo y los dos miembros de esta institución, el principal lugar para demostrar nuestra solidaridad es éste. Los demás también son muy válidos y necesarios, pero aquí es donde debía darse la discusión principal. Han hecho la del avestruz, justamente los que han provocado esta situación. Ellos aprobaron esta ley y ahora cuando llegan las consecuencias a nuestro pueblo se escapan. Para mí eso es una gran falta de responsabilidad y muy fea. Crea una gran desconfianza hacia sus actitudes.

Bittor Elizagoien (Erbereko junteroa): Ados nago beraiek errandakoarekin. Ez naiz harritzen izandako jarrerarekin. Duela urte batzuk, alderdi politiko bat legez kanpo egon zen, beraien lege bat zela medio, mehatxuak kondenatzén ez zituztelako. Orain, tortilak buelta eman duenean, legala da. Gogorra iruditzen zait. Badirudi azken bi urtetako prozesu honek min ikaragarria eman diela batzuei, eta 50 urteko borroka baino min gehiago eman diela ematen du. Batzuek ez dute hau onartzen, baina guk prozesu hau aitzinerat ateratzen saiatu behar dugu eta eguneroko-lanarekin-lortuko dugu.

Garbiñe Elizegi (alkatea): Eskerrak, guretako arras garrantzitsua da. Eskertzen da elkartasuna eta beharrezkoa da. Horrek lanean jarraitzeko indarra ematen du, baina beste aldetik mehatxu hauek baztandar guztien aurkako mehatxuak direla ikusten da. Gaur gu izan gara, baina bihar zuetako edozein izan daiteke, herriko alkate eta ordezkari edo zinegotzi zareten heinean. Errandakoa argi gelditu dela uste dut. Erran duzuenarekin ados nago.


Mikel Sobrino (Elizondoko alkatea): Nik ere, eskertu etorri zareten guztiei. Kanpoan ere jende anitzek animoak ematen dizkigute eta hori eskertzekoa da. UPNk, nire ustez, aukera polita galdu du orain arteko gauza anitzei buelta emateko. Nik uste aukera baten aintzinean gaudela. Euskal Herri mailan dugun egoerari buelta emateko, badirudi batzuk ez dutela deus berririk egin nahi eta gibelerat egin nahi dutela. Niretzako hemen ez egotea eta solastera ez ausartzea pena bat da. Bertze guztiei, esker mila eta lasai egon.

Batzarburuak bilkura honen espedientearen puntu bakar bezala agertzen den mozioa bozkatzera deitzen du:

Batzar Nagusiak, agertu diren batzarkideen aho batez, mozioa onetsi du.

Jasota gera dadin eta behar diren ondorioak izan ditzan, honako Akta hau legezkoa egiten da, bilkurari hasieran adierazitako egunean, 20:25ean amaiera emanez, alkate-udalburuaren oniritzia izanik eta zigilaturik, neuk idazkariak fede emanda. Elizondon, Baztanen, 2013ko abuztuaren 29an.

ONIRITZIA / Vº Bº
ALKATE-UDALBURUA
LA ALCALDESA-PRESIDENTA



IDAZKARIA
EL SECRETARIO

Bittor Elizagoien (juntero de Erbera): Creo que todos los que han hablado han explicado todo muy claramente. Yo estoy de acuerdo con lo que han dicho ellos. Yo no me he extrañado demasiado con la actitud, ya sabemos como andan. Hace unos años hubo un partido ilegalizado, que dejaron fuera de la ley porque no condenaban las amenazas. Ahora cuando se da la vuelta a la tortilla, entonces es legal. Me parece algo un poco duro. Parece que el proceso de los últimos dos años les ha hecho mucho daño. Les hace más daño que la lucha de los últimos 50 años. Nosotros debemos sacar este proceso hacia adelante y lo lograremos trabajando día a día.

Garbiñe Elizegi (alcaldesa): Gracias, para nosotros es muy importante, aunque en este caso se han dirigido a dos personas concretas. Se agradece y es necesaria la solidaridad. Da fuerza para seguir trabajando y por otra parte vemos que estas amenazas son amenazas en contra de todos los vecinos de Baztan. El siguiente puede ser cualquiera, mientras seáis concejales o representantes de los pueblos. Creo que lo habéis dejado claro. Estoy de acuerdo con lo que habéis dicho.

Mikel Sobrino (jurado de Elizondo): Agradecer a todos los que habéis venido. Mucha gente nos da ánimos en la calle y es de agradecer. Creo que UPN ha perdido una bonita oportunidad para darle la vuelta a muchas cosas dichas hasta ahora. Creo que estamos ante una oportunidad para darle vuelta a la situación Euskal Herria y parece que algunos no quieren esto y quieren ir para atrás. Para mí que hoy no estén aquí y no se atrevan a hablar es una pena. Muchas gracias a todos y estad tranquilos.

Presidencia llama a votar la aprobación de la moción, que consta como único punto en el expediente de la presente sesión:

La Junta General aprueba la moción por unanimidad de los presentes.

Y no habiendo más asuntos que tratar, para constancia y efectos consiguientes, se formaliza la presente Acta, levantándose la sesión a las 20:25 horas del día al principio indicado, llevando el Vº Bº de la Sra. alcaldesa-presidenta y sellada en forma, de lo que yo, el secretario, doy fe. En Elizondo, Valle de Baztan, a 29 de agosto de 2013.